

Berdintasun zerbitzua:

Berdintasun Zerbitzua toki entitate honen berdintasunaren gaineko politiken diseinuaz, plangintza egiteaz, kudeatzeaz eta ebaluazioa egiteaz arduratzen da.

Bestalde, aukera berdintasunaren gaian jendarte sentiberatzen du, informazioa ematen du eta aholkularitza lanak egiten ditu, bai udal mailan (Udaleko langileendako) bai udalerrri mailan (herritarrendako, elkarreendako edota taldeentzako).

Genero berdintasuna Nafarroako Toki Entitateetan dokumentuak Udal Berdintasun Arloetako Lanaren Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluaziorako Ibilbidea, 2014koak, Berdintasun Arloen eskumenak, funtzioak eta edukia modu sistematikoan definitzen ditu. Jarraian zehazten diren lau esku-hartze arloak ezartzen ditu:

Mainstreaming-a eta gobernantza	Politika publikoetan genero ikuspegia integratzea. Genero ikuspegia integratzen badugu, esku hartze publikoan emakume eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta behar ezberdinak modu sistematikoan kontutan hartzea lortuko dugu.
Emakumeen aurkako indarkeria	Emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desorekaren adierazpen larrietako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da eta desagerrarazteko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea.
Zaintza, bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	Bizitzaren maila guztiak harmonizatzea du helburu ardatz honek, horretarako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuz . Nola? - etxeko lanetan gizonak erantzukidetasuna izan dezaten bultzatuta; - enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokituta; - eta, zerbitzu sozio-sanitarioak eta laguntza ekonomikoak egokituta.
Emakumeen ahalduntzea	Ardatz hau emakumeen kontzientziazio prozesuekin lotua dago (banakakoa eta taldekoa). Emakumeak gizarte, politika eta ekonomia alorretan indartzea beharrezkoa da aukera berdintasuna lortzeko. Emakumeak kanpoan uzten ez dituen botere eredu berri bat eraikitzea da ardatz honen azken helburua.

MARKO JURIDIKOA:

Estatu mailako legedia:

Martxoaren 22ko 3-2007 Lege Organikoa Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako [*Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres*](#)

Abenduaren 28ko 1-2004 Lege Organikoa Genero-Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa [*Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género*](#)

Nafarroa mailako legedia:

33/2002, azaroak 28ko, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeari buruzko foru legea [*Ley Foral 33/2002, de 28 de noviembre, de fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*](#)

14/2015 FORU LEGEA, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa [*Ley Foral 14/2015, de 10 de abril, para actuar contra la violencia hacia las mujeres*](#)

8/2017 FORU LEGEA, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2017/124/Anuncio-0

Bestelakoak

[*Estrategia europea igualdad 2012-2015*](#)

[*Pacto europeo igualdad género 2011-2020*](#)

EFEMERIDEAK:

Otsailak 11, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 31, Trans Ikusgarritasunaren Nazioarteko Eguna

Apirilak 26, Ikusgarritasun Lesbikoaren Eguna

Maiatzak 17, LGTBIQ+fobiaren Nazioarteko Eguna

Ekainak 28, LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Urriak 15, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna

Azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko eguna

[ETXAURIKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA](#)

[TOKIKO PROTOKOLOA ERASO SEXISTAK PREBENITZEKO ETA HORIEI AURRE EGITEKO](#)

Harremanetarako:

Helbidea: Oltza Zendeako Udaletxea, Angulo kalea, 2 zbk. – 31171 Ororbia (NAFARROA)

Telefonoa: 948 32 20 68– 628 15 70 84

E-posta: berdintasun_teknikaria@ayuntamientoolza.com